



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2026ko martxoaren 25ean, arratsaldeko zortziak eta hogeita hamarrean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura berezia eta premiazkoa egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren batzarrekideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/andereak: Barberena Echart, Beñat – Gómez Sanz, Iraide - Merino Iriarte, Juan Esteban - Ubau Galarza, Nere.

Lehenik eta behin, presaren arrazoiak azaldu dira; izan ere, Arrazolako pistako lanak amaitu dira eta martxoaren 31 baino lehen egin behar da ordainketa. Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Kultur Olako koordinazio-lanposturako aurrez hautatu zituen pertsonetako inor ez da aurkeztu, eta datorren astean Aste Santuaren aurretik norbaitek lan egin beharko luke.

Osoko Bilkurak premia berretsi du aho batez, eta gai-zerrenda aztertzeari ekin zaio:

LEHENENGOA.- IRABIAKO PISTAKO ETA ARRAZOLAKO HARRERA-GUNEKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO OBRAK: PREZIO KONTRAESANKORRAK ETA OBREN HIRUGARREN ETA AZKEN ZIURTAGIRIA ONARTZEA.

José Luis Tornaría SL enpresak Irabia-Arrazolako pistan, PSTD-PRTRren barruan, egin dituen obren hirugarren eta azken ziurtagiria aurkeztu da. Lanak martxoaren 18an amaitu dira.

Era berean, prezio kontrajarrien aktaren berri eman da (Arrazola inguruko seinaleei eta bide-marrei dagokie).

Proposamena egin eta obra-zuzendaritzak onartu ondoren, ziurtagirian honako zenbateko hauek sartu dira:

Kapitulua	Zenbatekoa
I. Sarbidea eta Arrazolako harrera gunea hobetzea	116.133,22
II. Irabiako pista hobetzea	212.820,25
III Hondakinak hobetzeko azterketa	1.904,16
IV Prezio kontrajarriak	36.029,00
Ziurtagiria, guztira	366.886,63
Gastu orokorrak, %10	36.688,66
Industria etekina, %6	22.013,20
GUZTIRA	425.588,49
Esleipena (0,985951795 – beherapen koefizientea)	378.403,22
Prezio kontrajarriak, ziurtagiria (GO eta etekina)	41.793,64
METATUTAKO ZIURTAGIRIEN ZENBATEKOA	420.196,86
Kentzekoa, obren 1. Eta 2. ziurtagiriak	-290.267,25
HIUGARREN ZIURTAGIRIAREN ZENBATEKOA	129.929,61
%21BEZa	27.285,22

Osoko Bilkurak prezio kontrajarrien akta eta obren hirugarren ziurtagiria onartu ditu, ehun eta berrogeita hamazazpi mila berrehun eta hamalau euro eta laurogeita hiru zentimokoa, BEZa barne. Obra-zuzendaritzak jakinarazi duenez, obrak gauzatzeak ez du ia desbideraketarik izan esleipen-prezioarekiko. Esleipen-prezioa, BEZik gabe, 367.399,98 eurokoa izan zen, eta obren amaierako ziurtagiria 366.886,63 eurokoa, BEZik gabe, hau da, -513,35 euroko aldea.

Obren garapenaren emaitzari dagokionez, Ubau andereak adierazi du arekak ez direla oso ongi geratu, materiala ez delako fin ikusten eta harri solte asko dagoelako; gainera, bazterretan lurra dago, behar bezala zabaldu gabe dagoena, eta ez da txukun geratu (horietan ere harriak daude nonahi).

Osoko Bilkurak uste du Arrazolan dagoen goragunea kendu behar dela, eta Erlango zubiko barandak ikuskatu behar direla. Merino jaunak, halaber, Irabiako urtegiaren inguruan dagoen aparkalekuaren hesia hobetzea eskatu du, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Accionari jakinaraztea eremu horretan dituzten seinale guztiak hondatuta daudela, seinale berriak jar ditzaten horien ordez.

BIGARRENA.- KULTUR OLARAKO LANGILEAK KONTRATATZEA: EGUNGO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HARTU BEHARREKO ERABAKIA.

Jakinarazi da, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak otsailaren 13an erabaki zuen bezala, Kultur Ola gunean informatzaile eta koordinatzaile bat bederatzi hilabetez kontratatzeko lan-eskaintza bat egin zela, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzen pean. Egin zen lehenengo eskaintzan, Euskarabideak ez zuenez baieztatu maila-proba bat egiteko prest zegoela, C1 titulazioa aurkezteko eskatu zen, eta deialdi horretara ez zen inor aurkeztu. Horrenbestez, epe berri bat ireki zen, kasu horretan maila egiaztatzeko proba egiteko aukera ematen zuena, eta eskaintza herri mugakideetara zabaldu zen; hutsik geratu zen hori ere, ez baitzen inor aurkeztu. Une honetan kasik ez dago egunik eskaintza berri bat izapidetzeko, eta, horregatik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin hitz egin da dirulaguntzarik gabeko eskaintza bat izapidetzeko, aurreko urteetan Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzen programaren barruan lan egin duten pertsonak ere aurkez daitezzen. Beraz, Batzarre Nagusiak erabaki behar du une honetan zer kontratu eskaini eta zein iraupenekin.

Gaia luze eta zabal eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak erabaki du Aste Santurako pertsona bat kontratatzea, informatzaile gisa. Kontratuaren iraupena apirilaren 1etik 7ra bitartekoa, biak barne, izanen da. Soldata informazio langileentzat plantillan zehaztuta dagoen bera izanen da, eta euskara-mailari dagokionez, koordinazio lana egin beharko ez duenez, B2 mailaren baliokidea eskatuko da. Maila-proba egitea eskatzen duten pertsonen egiten zaie. Izena emateko epea ostiralean, hilak 27, amaituko da eta aukeraketa astelehenean egiten da, 12:00etan. Aurreko deialdietan ezarritako gainerako baldintzak, baremoa eta epaimahai kalifikatzailea mantentzen dira.

Aste Santuaren ondoren, Osoko Bilkurak aztertuko du lanpostu horiekin zer egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako arratsaldeko bederatiak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.